

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Sailsa**

2021eko ekitaldian euskarazko aldizkariak argitaratzen dituzten merkataritza sozietateei, kooperatiba sozietateei, banakako enpresaburuei, profesionalei eta irabazi asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei diru-laguntzak emateko deialdia arautzen duen 2020ko abenduaren 15eko 115/2020 Foru Dekretuaren itzalpean (2020ko abenduaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 244. zk.) aurkeztutako diru-laguntzen eskabideak ebatzi zituzten Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren ekainaren 1eko 1360/2021 Foru Aginduan antzemandako okerren zuzenketa.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren ekainaren 1eko 1360/2021 Foru Aginduen bitartez (2021eko ekainaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 108. zenbakia), ebatzi ziren 2020ko abenduaren 15eko 115/2020 Foru Dekretuaren itzalpean aurkeztutako diru-laguntzen eskabideak. Dekretu horrek 2021eko ekitaldian euskarazko aldizkariak argitaratzen dituzten merkataritza sozietateei, kooperatiba sozietateei, banakako enpresaburuei, profesionalei eta irabazi asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia arautzen ditu (2020ko abenduaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 244. zenbakia).

Aipatutako 1360/2021 Foru Aginduaren I eranskinean, entitate onuradun batek aurkeztutako proiektu baten aurrekontu araztuari buruzko akats bat dago, zuzendu behar dena.

Horregatik eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen Euskara, Kultura eta Kirol Sailsaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduak eta arloko gainerako xedapenek Euskara, Kultura eta Kirol Saileko titularrari ematen dizkieten eskumenak kontuan harturik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren ekainaren 1eko 1360/2021 Foru Aginduaren I. Eranskinean (2021eko ekainaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 108. zenbakia)

— Honako hau dioenean:

IFZ NIF	Eskatzailea Solicitante	Argitalpena Publicación	Aurkeztutako aurrekontu araztua (€) Presupuesto presentado depurado (€)	Emandako kopurua Importe concedido (€)
B95284857	Lea-Artibaialdeko Hedabideak, S.L.	Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	698.171,00	279.000,00



— Honako hau esan behar du:

IFZ NIF	Eskatzailea Solicitante	Argitalpena Publicación	Aurkeztutako aurrekontu araztua (€) Presupuesto presentado depurado (€)	Emandako kopurua Importe concedido (€)
B95284857	Lea-Artibaialdeko Hedabideak, S.L.	Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	673.151,00	279.000,00

Bigarrena: Okerren zuzenketa hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bilbon, 2021eko ekainaren 10ean. — Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua, Lorea Bilbao Ibarra